

2024ko Euskadiko txapelketako arautegiaren berezitasunak

2024ko Euskadiko txapelketa EMF eskalada lehiaketen indarreko araudiaren arabera arautuko da.

Ohar honen bidez, lehen aipaturako erregelamenduaren sailkapen-errondaren atala aldatzen da. Bertan, 6 sailkapen-blokeren gainean lehiatu beharrean, 25 eta 35 bloke artean lehiatuko dira, eta horietatik puntuaziorik handiena lortu duten 10 blokeek bakarrik puntuatuko dituzte.

Lehiakideak denbora mugatua izango du arbitro delegatuak nahi dituen bloke guztiak egiteko, kontuan hartuta puntuazio handiena lortu duten 10 blokeak baino ez zaizkiola zenbatuko. Blokeen saiakera-kopurua mugagabea izango da.

Sailkapena egiteko, puntuazio handieneko arrakastaz egindako 10 blokeetan lortutako puntuak batuko dira. Puntu-berdinketaren kasuan, puntuaziorik handieneko arrakastaz egindako 10 blokeetatik top multzoetara egindako saiakerak gehituko dira, eta puntuazio onena blokeak osatzeko saiakera gutxien egin dituen izango da. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, puntuazio handieneko arrakastaz egindako 10 blokeetatik eremura egindako saiakerak gehituko dira, eta saialdi gutxien egin dituen izango da puntuaziorik onena.

Finaletara euren kategorian puntuaziorik handiena lortu duten 8 kirolariak igaroko dira, Irekian edo txapelketan parte hartu ala ez.

Finalak EMFren eskalada-lehiaketen indarreko araudiaren arabera egingo dira.

Behin finalak amaituta, bi sailkapen argitaratuko dira: bata Euskadiko 2024 blokeko txapelketarako eta bestea Open txapelketarako.

Antolakuntza